

## 2012ko Euskadiko Txapelketa izan dugu astean Arrasaten

2012/02/17

Euskadiko Unibertsitate Kirol Txapelketa, Mondragon Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Deustoko Unibertsitatearen artean jokatzeko txapelketa da. Txapelketa honetan, kirol jokamolde ugariaren finalak jokatzeko dira hiru unibertsitate hauen artean eta garaileak Espainiako Unibertsitate Kirol Txapelketarako sailkapena irabazten dute.

Eguraldiak askorik lagundu ez zuen arren, Euskal Herriko txoko guztietako ikasleak hurbildu ziren Arrasatera eta giro polita sortu zen txapelketaren inguruan. Parte hartzaile guztientzat otartekoak banatu genituen bazkaltzeko, eta horretaz gain, Euskadiko Unibertsitate Kirol Txapelketaren logotipo berriarekin diseinatutako toailak ere banatu genituen opari gisa.

Txapelketako partida guztiak Arrasaten jokatu ziren Iturripe, Mojategi eta Musakolako instalakuntzetan. **MUko ikasleek hainbat jokamoldetan garaile irtetzea lortu zuten eta zorionik beroenak beraiei, Espainiako edo beste txapelketa batzuetarako txartela lortu bait dute. Hauek izan ziren irabazitako kirol modalitateak: gizonezko eta emakumezkoen 7ko futbolearen, esku pilota banaka eta binaka, pala gomazeta xakean.**

Txapelketako emaitza guztiak ikusteko aukera duzue hemen sartuta!!

Eskerrik asko berriz ere aurtengo unibertsitate kirol txapelketetan parte hartzeagatik eta ZORIONAK jokamolde bakoitzeko irabazleei!!

